

Quilis, Antonio, *El comentario fonológico y fonético de textos. Teoría y práctica*. Arco/Libros, Madrid 1985, 255.or. ISBN: 84-7635-007-4.

Antonio Quilis irakasle eta hizkuntzalari ospetsu honek ez dugu uste aurkezpen handiren beharrik duenik. Fonetika eta Fonologia arloan ikasten edo irakasten diharduen edonork izango baitu 1960. urte-tik hona, etengabe argitaratzen ari den liburu eta artikulu zerrenda luzearen berri.

Eskuartearen dugun liburua, 1981ean<sup>1</sup> argitaratu zuenaren haritik doa nolabait, nahiz eta helburuak arras desberdinak izan. Hain zuzen ere, ohi ez bezala, bigarren atalean espektrografiaren teknikez baliaturik ariketa ugarien erantzunak eskeintzen dizkigu egileak xeheki esplikaturik.

Liburua bi parte nagusitan antolatua badago ere, ezin aipatu gabe utzi Quilis-ek egiten duen aintzinsolasa eta sarrera mamitsua. Bertan laburbiltzen da liburuan zehar zabalduko duenaz gain, estatuko unibertsitateetan, «Lengua Española» delako gaiaren irakaskuntzan bizi-bizirik dirauten hutsune larriak: dialekto arazoak, intonazioa, fonologia literarioa, etab. Aurrerantzean, Fonetika eta Fonologiaren barrutian egin behar den irakasbidearen oinarri teoriko eta praktikoen finkapenaz den bezainbatean irtenbide egokiak ematen ahalegintzen da: «...unas cuantas nociones, fáciles, básicas, que son importantes no sólo para el nivel fónico, sino para la comprensión de los fenómenos y de las relaciones que se establecen en otros niveles del análisis de la lengua» (15. or.).

Azken urteotan hizkuntzaren zeintziabidezko ikertzapenek eta, teknologiaren garapenarekin batera, tresnabidezko fonetikaren aurrerapenek ekarri dituzten aldakuntzak metodologian eta didaktikan, inolaz ere ezin direla baztertu; ezagutu, arakatu eta eskeintzen dizkiguten analisi-bide berriak urratu behar direla, dio, ulergarritasun eta zehaztasunaren mesedetan:

«... con el objeto de que el desarrollo del comentario no se haga sobre la base de la intuición, sino con un conocimiento de causa lo más científico posible» (8. or.).

Eredu gisa, besteak beste, Navarro Tomás-ek espainierazko zenbait bokal eta kontsonanteren gauzate fonetikoez, transkribaketa arauéz etab., orain arte esan duenarekin ez dator bat eta Quilis-ek egindako ikerlanen sintesi-ondorioz, ezadostasun horien zergatia frogatzen du.

Izenburuak dioten bezala, liburua bi atal nagusitan banatua dago, lehena teorikoa eta praktikoa bigarrena. Alderdi teorikoak hiru kapitulu ditu. Hauetan zehar, estrukturalismo europearrean oinarriturik, ur handitan sartu gabe, kontzeptu nagusiak zehazten ditu laburki, beti ere ondoren egingo dituen komentarioen zutabe gerta daitezten.

Ahozko kodearen eta kode idatziaren berezitasun nagusiak eta di-

(1) *Fonética acústica de la lengua española*.

ferentziak aipatu ondoren, unibertso fonikoa kokatzen du kode batean eta bestean lehen kapituluan.

Fonetika eta Fonologiaz diharduen hurrengo kapituluan XX. mendeko hizkuntzalaritzaren zimentarriak eta iturburuak ditu aipagai. «Hizkuntza ez da sustantzia, forma hutsa baizik» uste du dela hizkuntzalaritza modernoaren habe nagusia. Bi hizkuntzalari handiren lanetan oinarriturik<sup>2</sup> sustantzia eta forma kontzeptuak argitzen ditu.

Unitate fonikoei eskeintzen die Quilis-ek hirugarren kapitulua. Definitu ondoren, honela kontsideratzeko bete behar dituzten baldintzen barnean<sup>3</sup> sartuko ditu fonemak, baldintza hauek betetzen dituzten neurrian. Twaddell, Hjelmslev, Trubeztkoy, Jakobson eta Martinet-en fonema kontzeptu desberdinak agertu ondoren, espainieraren fonema eta aldaeren deskribapena egiten du, Jakobson-en formulaketa teorikoetan oinarriturik. Bokal eta kontsonanteak aztertzerakoan, ikuspuntu akustikoa eta artikulaziozkoa ditu kontutan; aldaeren berri eman ondoren, transkribaketa ortografikoa, AFI eta RFE erabiltzen ditu. Aipagarriak dira, dakartzan soinuen filme erradiologikoak, soinu eta fonemen artikulaziozko taulak eta tasun bitarren taula akustikoa. 67-88. or. zehar unitate suprasegmentalak edo prosodikoak ditu aztergai. Azentuaren definizio orokorra, funtzioak eta tipologia zehaztu ondoren, espainierazko azentu eskemen laburpen taulak egiten ditu. Ohizko teoriari kontrajarri, azken urteotan behin eta berriz esana errepikatzen digu hemen ere espainierazko azentuaz, hots, oinarrizko maiztasuna dela ezaugarri nagusia, iraupena ondoren eta intentsitatea azkenik.

Intonazioak funtzio linguistikoa bete eta sustantzia eta forma dituela onartzen duen neurrian Malmberg eta Faure-ren<sup>4</sup> irizpideak hobesten ditu. Melodi-kurbaren parametroen berri ematerakoan, azentuan bezalaxe, oinarrizko maiztasun aldeketetan aurkitzen du ezaugarri fisiko nagusia. Korrante europarraren tesiak jarraituz, espainieraren tonu-mailak, bukaera-lokuneak eta azentuak zein diren esan ondoren amaiera ematen dio teoriatzko parte honi.

Bigarren partean praktikak eta iruzkin fonetiko eta fonologikoak ditugu. 91-93 orrialdeetan ahozko testu eta testu idatzien transkribaketak egiteko ohar garrantzitsuak eman ondoren, bi motatako praktikak ditugu:

- a) Teoriari guztiz atxikirik dauden testu transkribaketak, fonema eta aldaerei lotutako galderak eta artikulaziozko eskemei buruzko 40 ariketa eta berauen erantzunak.
- b) Sonogramen azterketa eta interpretapena egiteko beste 13 ariketa eta erantzunak.

(2) F. DE SAUSSURE eta L. HJELMSLEV.

(3) E. BENVENISTE: «Les niveaux de l'analyse linguistique» in *Problèmes de linguistique générale*, Paris, 1966 eta G. Hammarström, *Las unidades lingüísticas en el marco de la lingüística moderna*, Madrid, Gredos, 1975.

(4) «Analyse instrumentale et structurale des faits d'accents» in *Phonetique générale et Romane*, Mouton, 1971.

Egileak berak gogorarazten digu, azken ariketa hauek ulertzeko, nahitaezkoa dela 1981ean argitaratu zuen liburuko zenbait kapitulu ezagutzea. Hala nola: soinuaren akustika, sonografoa, hizkuntz-sintetizataileak, ezaugarri berezleak, etab. Halere, espektrogramak komentatzeko orientabide teoriko batzu eskeintzen dizkigu: bokalen formakin, segmentu bakoitzaren denbora, intentsitatea eta oinarrizko maiztasunaren neurketei buruzkoak batetik eta interpretapenei buruzkoak bestetik.

Azkenik, egileak zehaztasun osoz egindako testu desberdinen iruzkin fonologiko eta fonetiko hauek ematen dira:

- testu idatzia;
- hiztun bakarraren ahozko testua;
- solasketa testua;
- hizkuntz-mapa.

Testu bakoitzari zor zaion berezitasunak aztertzeaz gain, eta hizkuntz-maparen komentarioan izan ezik, beste guztietan antzeko metodologia erabiltzen du. Honela, transkribaketa fonologikoan eta fonetikoan, azentua eta intonazio-markak ahortzi gabe, AFI eta RFE-ren zeinuak erabiltzen ditu; zalantza-iturri gerta daitezkeen osagai labur eta osagai luzeen argitasunak eta ahozko testuaren kasuan, bokalen analisi akustikoa dakar. Hemen, formakinen datuen ondoan paratzen ditu hiztunaren formakin taulak, triangelu akustikoak bokal azentudun eta intonazioan, oinarrizko maiztasunaren aldaketak isladatzen dituen bi irudi.

Gaien eta irudien aurkibideekin amaitzen da liburua.

Lan garrantzitsu eta funtsezko baten aurrean gaudela aitortu behar. Ezagupen teorikoen aplikazioetan somatzen dugu meriturik handiena. Ariketak eta iruzkinak pausoka, pedagogikoki eta zorrottasunez burutuak daude. Lanabes eraginkorra izan daiteke fonetika eta fonologiako lan praktikoa eta esperimentalen hastapenatarako.

Bere osotasunean liburua ongi ekilibratua egon arren, kontutan harturik lehen kurtsoko unibertsitate ikasleei zuzendua dagoela, azken urteotan arrakastaz hedatzen ari diren teoria berriei leihoak ez zabaltzea eta oinarrizko bibliografiaren falta, lirarteke gure ustez alderik eskasena.

*Pilar Echeverria*  
(UPV/EHU)

Jon Juaristi, *Literatura Vasca*, «Historia Crítica de la Literatura Hispánica» 29, Taurus, Madrid 1987.

Irakasle azkar eta zorrotz honek kritikak ematen ohi dituen erremintez hornituz eta baliatuz liburu paregabe bezain kritikagai dena argitaraberria digu euskal literaturaz.